

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	4.746 biztanle
Zabalera:	264,19 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Lizarrerria (ikus mapa)
Udalerriak:	Allo, Arellano, Arroitz, Barbarin, Deikaztelu, Iguzkitza (Urbiola bakarrik), Lerin, Lukin

2. Komunitatea eta osasuna

Alloko eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 40tik 70 urte bitarteko biztanleak dira nagusi. Biztanleria maskulinizatua hautematen da, batez ere tarteko adinetan, eta feminizatua, berriz, 75 urtetik goiti. Alloko eskualde oinarrizkoa da jaiotza tasa txikiena (%5,6), zahartzaroko mendekotasun indize handiena (%50,1) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen (%42,8) eta gizonezkoen (%28,1) portzentaje handiena dituztenetak.

Allokoa emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago, emakumezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (87,2 urte). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago, 6 hilabetetan amagandik edoskitzen duten haurrei dagokienez (%52,6), emakumezkoen

eta gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%19,3 eta %10,8, hurrenez hurren) eta urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%61,1).

Nafarroa2000 zonifikazioan Alloko eskualde oinarrizkoa, nagusiki, Lizarrerriko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Lizarrerriari dagozkion adierazleak, bizimoduak, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %37,4k diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %25,7k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Lizarrerriko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentzako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruihilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarrerren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batera egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 26,3 eta gizonezkoak 12,8); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z -score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 9,0); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuen neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.